

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 591/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Iñaki Aldekoagarai Labaka jaunak Finantza eta Aurrekontu zuzendari kargua uzteari, hark hala eskatuta**

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 3ko 482/2015 Erabakiaren bidez, Iñaki Aldekoagarai Labaka jauna izendatu zen Finantza eta Aurrekontu zuzendari lanpostuan.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Ikusi da Iñaki Aldekoagarai Labaka jaunak aurkeztutako ukoa; beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Iñaki Aldekoagarai Labaka jauna Finantza eta Aurrekontu zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**MARIA ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**